

LETE LIBURU-DENDA

Kontxi Begiristain



Enrike Lizasoain eta Joxean Zarraga.

Aurtengo urtekarirako elkarrizketa egiteko ez gara kale Nagusitik atera. Izan ere, Lete liburu-dendako Enrike Lizasoain eta Joxean Zarragarekin luze hitz egiteko aukera izan dugu. Lete liburu-denda ezagutu dugunontzat bi hauek ezagunak egingo zaizkigu, urteak eta urteak eman baitituzte zerbitzu hori eskaintzen, Enrikek urte asko eta Joxeanek gutxixeago, baina biak buru-belarri zetorren bezeroari ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko asmotan. Beraiek diotenez, bukatu dute lan harekin, baina memoria pixka bat freskatuko dutela esan digute bukatutzat emandako lanak berriz gogora ekartzeko. Hona hemen bada gure galderi erantzunez sortutako elkarrizketa.

Enrike eta Joxean konta iezaguzue, gogoan duzuen neurrian, Lete liburu-dendaren bizitza, noiz ireki zituen atea, zeinek, non...

Jada 48 urte dira, 48 bai, 50 izateko bi falta, Pilar Lete nire amak –Enrikeren amak eta Joxeanen amaginarrebak– ireki zizkion atea bere abizena zera-man liburu-dendari, 1960. urtean. Hasiera Kardaberaz kaleko bosgarren zenbakian izan zuen, eta hiru seme-alabok, gaztetxoak oraindik, han aritzen ginen eguneroko eginbeharretan laguntzen. Eta horrela eguna joan eta eguna etorri. Urteak aurrera eta Pilarrek erretiroa hartu zuenean, 1985ean, Enrikek eta Joxeanek hartu genuen sozio eta hortik aurrera Pilarrek markatutako bideari

jarraitu eta ahal genuen heinean indartu eta zerbitzua hobetzen ahalegindu ginen. 1989an pasa ginen Kale Nagusiko lokalera eta han jardun dugu aurtengo urtarrilaren bukaera arte.

Beraz, urtarrilaren bukaeran zuen bukaera ere izan da.

Bueno gure bukaera bai, baina ahalegindu gara gure mailako zerbitzuari eutsiko dion batzuen eskuetan uzten. Herria profesional sendo batzuen eskuetan uzten, hainbeste urtetan eskaini dugun zerbitzuak jarraipena izan dezan. Gu gara lan horri utzi diogunak, liburu-dendak hor jarraitzen du, orain Elkar liburu-denda baldin bada ere.

Batek pentsa dezake negozioa uztearen arrazoia komertzio txikiaren gainbeherarekin lotuta egon daitekeela, baina besteek jarraitzen badute...

Bai, halaxe da, komertzio txiki asko ixten ari dira arrazoi hori dela eta. Denok dakigu gaur egun saltoki handiek duten eragina. Jende askoren erosketak egiteko ohiturak aldatu egin dira eta horrek komertzio txikiari kalte handia egin dio. Eta, jakina, horrekin batera herri bateko eguneroko bizitzari ere bai. Esan behar dugu, guri ere horrek ez zigula mesede handirik egiten, baina urte askoren esperientziak lagundu digu aurrera jarraitzen. Harreman ugari eta zuzenak izan ditu-



Kardaberaz kaleko 5. zenbakian zegoen Lete liburu-denda.

gu argitaletxe, banatzaile eta irakurleekin. Argitaletxeetatik zuzeanean ere bidaltzen zizkiguten liburua. Esan bezala, esperientzia eta gertutasuna izan da gure oinarria eta beti aurrera begiratzuz aritu izan gara gure eguneroko jardunean. Uste dugu horri esker mantendu dugula hainbeste urtetan gure eskaintza.

Baina urteak pasa ahala –dio Enrikek– aurrera begira irtenbideren bat aurkitu beharrean geunden. Joxeanek bakarrik jarraitzeko... lan handia da pertsona bakarrarentzat. Horregatik, inolako presarik gabe, Elkarrekoei proposamena egitea pentsatu genuen eta haiei egokia iruditu zitzaion. Beraz, adostasun batera iritsi eta aurrera egin genuen. Eta horixe...

Zuen laneko ibilbidean zein liburu mota izan da gure herrian gehien saldu duzuen?

Galdera horren erantzuna ez da batera erraza. Ez da erraza, zeren adinari eta garaiaren arabera, halako liburu mota. Nagusiki gehien-gehiena esan beharko bagenu, alde batetik, testu liburua eta, bestetik, literatura liburua esan beharko genuke. Baina horrez gain, bidaia liburua ere asko saldu izan ditugu. Badakizue, bidaia-tzea oso modan dago gaur egun...

Eta irakurle aldetik, zein irakurle mota dago gure herrian?

Irakurleak ere askotarikoak dira. Hor izan ditugu irakurle txikiak, irakur-

ketaren magia deskubritzen dutenean liburuan zer aurkituko irrikaz daudenak. Gero gaztetxoak datoz, ikastolan agindutako edo gomendatutako irakurgaiak irakurtzen dituzten horiek. Eta helduen munduan sartzen bagara, berriz, denetik daukagu. Durangoko azokarako argitaratutako liburuek, sona handia ematen zaienez, badute irteera. Orain, baita ere, best-sellerrak asko saltzen dira; hau da, kanpotik etorritako liburuek marketing handia baitute. Esate baterako, Harry Potterren liburua, Ken Folletenak... Baina liburu bereziak ere ateratzen dira.

Irakurle mota zabala izan dugu, gure liburu-dendan inguruko herrietako jendea ere hor izan dugulako. Bai Goizuetatik, Aranotik, Urnietatik, Astigarragatik... eta baita Donostiatik ere. Egia da dendan liburu asko izan arren, askotan eskatutako liburua ez genuela bertan izaten, baina ahalegintzen ginen ahalik eta azkarren gurera iritsi zedin, bezeroaren eskuetan jartzeko. Behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu, hainbeste liburu aurrean eta eskatutakoa falta. Baina eskatu, eta aurrera... aurretik jakin izan bagenu jendeak zer nahi zuen...

Liburuez gain beste zenbait material ere saldu izan duzue liburu-dendan...

Bai, papertegiko material ugari genuen salgai. Liburu hutsera ezin zara mugatu herri batean. Gurera mota askotako jendea hurbiltzen zen, aroztzak arkatx lodiaren bila, bildumagi-

le edo kolezionistak sailkatzaileen bila, esku-lanetarako paper berezien bila... bazen jendea propio gurera etortzen zena beste inon aurkitu ez zuelako. Eta urtetan gure bezeroak izan dira. Hori oso pozgarria da, jendeak asko eskertzen baitizu...

Ba horrelaxe, zuek zuena egin duzue eta orain besteek egin dezatela eurena. Ba, bai. Halaxe da, guk lan horrekin bukatu dugu eta orain besteen eskuetan dago. Elkarrekoek ere urte askotako esperientzia dute eta herriarekin asmatuko dutela esango genuke.

Elkarrizketa bukatu baino lehen, guk gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu gurekin gogoratu zaretelako, eta bide batez aprobetxatu nahi dugu gure inguruan ibili diren guztiei bihotz-bihotzez eskerrik beroena emateko.

Egin diguzuen harreragatik eskerrik asko zuei ere.



Kale Nagusiko 28. zenbakiko Lete liburu-denda "zaharra".

Hauxe da Joxean eta Enrikerekin, Lete liburu-dendako jabeekin, egin dugun berriketaldia. Oso gustura entzun ditugu kontatu dizkigutenak eta liburu-dendara joateari utzi ziotenean, hasiera batean gogorra egin zitzaizela esan badigute ere, orain bizitza lasaia gora ohituta lasaia bizi direla esan digute.